

ELKARRIZKETA IMAJINARIOA SIMONE DE BEAUVOIREKIN

Mariasun Landa Etxebeste

Idazle, pentsalari eta existentzialismo frantsesaren pertsonaia hau ezaguna dugu, gehien bat, idatzi zuen liburu batengatik, *Bigarren sexua*, emakumeen egoera eta izaera aztertzeko idatzi den obrarik enblematikoen, emakume askorengan eta mogimendu feministan eragin handia izan duena. Horretaz gain, nobelagile (kaskarra) eta memoriagilea (aparta) ere izan zen, mende honetako kultura frantsesaren dama ospetsua izatera helduz, askorentzat J.P. Sartreren bikotekidea izan zelako, ni bezalako gazte edota emakume inkonformista beste askorentzat aintzindari eta hezitzaile liluragarria izan zelako.

Aurten *Bigarren sexua* aipatutako liburuaren berrogeita hamargarren urteurrena dela eta, asko dira horren gainean antolatutako mahainguru eta hilzaldiak. Horregatik, egokia iruditu zait Simone de Beauvoirekin elkarrizketa imajinarioa izatea, *Bigarren sexua* liburuaz mintzatzeaz gain, egileari nolabaiteko omenaldi pertsonala egiteko gogoia sentitu izan dudalako.

-Neu jaio nintzen urtean idatzi zenuen *Bigarren sexua*, 1949an alegia... eta hamazazpi urte nituela irakurri nuen, liburu klandestinoek sortarazten ziguten emozio kilikagarriaz... Nola bururatu zitzaizun gure begi inuzenteak zabaltea?

S - O, maitea... badakizu, garai hartan ni ez nintzen feminista inola ere. Garai haietan, gizonezkoen artean onartu eta onetsitako intelektual tipikoa nintzen. Feminismoa niretzat esanahi iraultzailerik gabeko errebindikazio burges sorta bat baino ez zen. Liburu hura ustegabekoa izan zen nolabait, nitaz zerbait idatzi nahian nenbilen eta Sartrek eskaini zidan ideia: zergatik ez duzu aztertzen emakume izateak- zugar izan duen eragina?...

-*Bigarren sexua* Elizak urte askoz *Index*-ean eduki zuen liburua izan zen, moralgabe eta lotsagarria, amatasun-sena ukatzeaz gain, sexu-askatasuna aldarrikatzea leporatzen zizuten... ez al zen gehiegikeria hutsa izan?

S - Noski! Gehientsuenetan gertatzen den bezala. Kritika gehienak ez ziren liburuari berari zuzenduak, idatzi zuen emakumeari baizik: frigida, neurotikoa, errea eta bekaiztiaz gain, lizun, ninfomana eta abar deitu zidaten...

-Galdera soil baina adierazgarriak ematen dio hasiera liburuari: zer da emakume bat? Zuk uste al duzu gizonezko batek bere buruaz horrelako galdera egingo zuenik?

S - Horixe ezetz! Gizonak beti uste izan du bera dela betidanik GI-ZA-KIA, zuzenarekiko okerra definitzen den modura. Gizonak, betidanik, bere buruaz subjektu, esen-



tzial izatearen ustea eduki du, emakumea, ez-esentzial, objektu, hau da, BESTEA izatearen kategoriara mugatuz ... Emakumea beti "bestea" izatea da patriarkatuaren oinarrietako bat, zalantzarik gabe,

- "Emakumea ez da emakume jaiotzen, bilakatu egiten da", zure liburuaren baieztapen horrek arrakasta handia izan zuen, denok barneratu genuen esaldia da, mende honetako emakumeen borrokako lema, baina, agian, gaurko gazteek ahantzi dutena...

S - Bada, oso sintoma ona izan daiteke hori, lurra borobila dela ukatzen ez den bezala, ia denek onartzen duten egia dela alegia.

- Orain dela gutxi, gizonetzko argi batek zera galdetu zidan inuzenteki: "Baina zergatik agoantatu dute emakumeek hainbeste Historian zehar?"... Egia esango dizut, ez nintzen ausartu zuk zeure liburuan salatzen duzuna esatera, hau da, emakumea ideologia patriarkalaren biktimia eta konplizea izan dela.

S - Liburu horretan, ideologia patriarkalak emakumeari atxikitzen zion esentzia "femeninoa" aztertzen nuen gehien bat, emakume izatea egoera baten ondorioa zela frogatzen nuen, nola haurtzaroan eta adoleszentzian gartzen zen prozesu hau, eta ezkontzan eta amatasunean burutu... Baina ideologia hori hain da borobila zer biktimaren konplizitatea lortzen baitu, esklaboek jokabideak bultzatu, ihesbideak eskaini...

- Nik gogoan dut, batez ere, zugandik jaso nuen ezinbesteko lema: independentzia ekonomikoa, ogibideren bat izatea, bete beharreko lehen baldintza zela emakume aske batenzat, eta orain, berriz, zer esango dizut, bada?... Nire inguruan, emakume gehienak estresatuta ikusten ditut, superwoman izatera kondenaturik nahiz eta ekonomikoki independenteak izan... Gaur egun, ez al dira zapalkuntza zenbait onartzen maitasunaren izenean?

S - O, l'amour! "Sous le pont Mirabeau coule La Seine et nos amours!" Gogoratzen al duzu poema hori?

- Bai, noski, Apollinaire!... Baina ez zaitez adarretatik joan, madame! Pasioa, desira, amodioa, zer leku dute hitz hauek zure liburuan? *Bigarren sexua*-n, mundu afektiboaren sare korapilotsuaren azterketa egitea falta zitzaizula iruditzen zait... Begira, bestela, azken urte hauetan gertatu dena: J.P. Sartre eta zuk osatzen zenuten bikote zoragarria ez omen zela hain eredugarria izan frogatu da... zuen arteko gutunen bidez jakin izan duguna zuen mitoa apurtzeko adinekoa izan da.

S - Barka, niri kontuak eskatzen ala?

- Ez, zuri bakarrik ez.. Geure buruari ere bai. Belaunaldi bateko emakumeek hartu zintugun eredu, eta "Sartre-ren baten" bila abiatu ginen, maitasun sendoa baina libreia izan zitekeelakoan... eta gero...

S - Eguraldi ona gaurkoa, ezta?

- Ez zaitez eskakeatu, maitea... Esaten nizun bezala, gero... apo gehiegi musukatu behar izan dugu, Sartre bihurtuko zirelakoan. Zuk aldarrikatzen zenuen emakume aske izate haren konpromezua bizitza guztia okupatzen duen lana da, ufi!, modan ez dagoen zerbait.

S - Eta ez al duzu Simone de Beauvoir baten bila ibilitako gizonik ezagutu?

- Inori ez diot horrelakorik inoiz entzun, sentitzen dut. Beldur dira, nonbait. Gainera, azken urte hauetan, zutaz atera diren azken liburuek gaizki tratatu zaituzte... kupidagabeki.

S - Nik beti defenditu izan nuen norbera egoera askoren ondorio dela, eta pentsatzen nuena betetzen saiatu nintzen, ondo batzuetan, gaizki besteetan. Montparnaseko kanposantu honetan beti duzu larrosaren bat nire hilobian. Hori ez dute aitortzen aipatzen dizkidazun liburuek, ezta?... Bide batez, adizu, itzulita al dago euskarara *Bigarren sexua*?

- Ez, oraindik ez. Ea liburuaren berrogeita hamargarren urteurrena dela eta, norbaitek opari hori eskaintzen digun!

